

ETXEKO TRATU TXARRAK ETA SEXU-INDARKERIA JASATEN DITUZTEN EMAKUMEEI HARRERA HOBEA EGITEKO ERAKUNDEEN ARTEKO II. AKORDIOAREN SEGIMENDU- BATZORDEA

2017ko ekainaren 28ko saioan onartutako dokumentua

Genero indarkeria pairatzen duten Euskadiko haurren giza-
eskubideak babesteko ikuspegi eta ekintza-ildoak

AURKIBIDEA

I. SARRERA.	3
II. SAIOETAKO PARTE-HARTZAILEAK.	6
III. LAN-SAIOETAKO ARAU-EREMUAREN ESKEMA.	7
IV. SAIO BAKOITZEKO LANAREN HELBURUA.	8
V. BI LAN SAIOETAKO EMAITZEN LABURPENA.	8
1. <i>Jardunbide egokien eta oztopoen identifikazioa</i>	8
2. <i>Erronkak eta ekintza ildoak erantzun egokia izateko</i>	10

I.- Sarrera

Indarkeria matxista jasan dezaketen haurren babes-beharrei heltzeko betebeharrak eta hori giza-eskubideen, generoaren eta haurtzaroaren ikuspuntutik egitekoak jatorria dute Haurren Eskubideei Buruzko Hitzarmenean, 1989 (HEBH), eta Emakumearen aurkako Bereizkeria Mota Guztiak Ezabatzeko Konbentzioan, 1979 (CEDAW, ingeleseko siglen arabera). Nazioarteko bi tresna horiek Estatuak derrigortu egiten dituzte «haurraren interes gorenari» lehentasuna emanaz joka dezaten kasu horietan.¹ Hala ere, bi tratatuen aplikazioa ikuskatzen duten batzordeek zehaztu egiten dute zer elementu balioetsi behar diren interes goren hori definitzeko. Zentzu horretan, aipatutako batzordeek gogoratu egiten dute generoan oinarritutako indarkeriak jatorria duela bazterkeria-ereduetan eta botere-desorekan, eta haurrak horien aurka babestu behar direla. HEBH ikuskatzen duen Batzordeak dei egiten die Estatuari «*generoan oinarritutako estereotipoen, botere-desoreken, desberdintasunen eta bazterkeriaren aurka borroka egin dezaten; izan ere, faktore horiek guztiak lagundu egiten dute etxeko indarkeriaren eta bortxaketaren erabilerak iraun dezan*».² Zentzu horretan ere, CEDAW betetzen dela ikuskatzen duen Batzordeak 2014n kondenatu zuen Estatu espainiarra (*Ángela González Carreño Espainiaren aurka kasua*) genero-indarkeriaren biktima baten alaba behar bezala ez babesteagatik. Izan ere, aitzak erail zuen erabaki judizial bidez baimendutako ikusketa gabeko bisita batean. Aipatutako Batzordeak Estatu espainiarrari gogoratzen dio emakumeen aurkako indarkeriaren eragina kontuan hartu behar dela, hori elikatzen duten aurreiritzien eta balioen ezagutza osoarekin, «haurraren interes gorena» zein den ondo zehaztu dadin hari eragiten dioten erabaki judizialetan.³

2014ko abuztuan Estatu espainiarrak *Emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta horien aurka borrokatzeko 2011ko Europako hitzarmena* (Istanbuleko Hitzarmena) berretsi izanak Europa mailako aurrerapen nagusia suposatzen du. Tratatu horrek genero-indarkeriaren lekuko diren haurrei aitorpena egiten die espresuki, biktima zuzen gisa. Estatuaren «betebehar orokorren» artean, babesari eta laguntzari dagokienez, hitzarmenak ikuspegi bikoitza aurreikusten du emakumeen beharren eta seme-alaben premien inguruan,⁴ eta Estatuari eskatzen die hainbat neurri har ditzaten emakumeen aurkako indarkeriak familia-inguruan duen eragina kontuan hartzeko, seme-alaben zaintza-eskubideak eta bisitak zehazteko unean.⁵

¹ HEBH aldarrikatu aurretik, CEDAWek dagoeneko jasotzen zuen printzipio hau (art.: 5.b. 16.1.D. eta 16.1.f.).

² Haurren Eskubideen Hitzarmena, 13. Ohar Orokorra, Haurraren eskubidea inolako indarkeria motarik ez jasateko. NBEren dok.: CRC/C/GC/13, 2011ko apirilaren 18koa, 72 b) par.

³ 47/2012 zk. komunikazioa. Batzordeak 58. bilkura-aldian onartutako irizpena. NBEren DOK.: CEDAW/C/58/D/47/2012, 2014ko uztailaren 18koa.

⁴ Istanbulgo Hitzarmenaren 18., 22., 24. artikulua, Istanbulgo Hitzarmenaren 31.1 artikulua.

⁵

Estatu mailan, duela gutxi onartutako arauak daude, norabide berdinean aurrera egiten dutenak. Delituaren biktimaren estatutuaren Legeak⁶ biktima zuzentzat jotzen ditu indarkeria jasaten duten emakumeen seme-alabak, eta eskubide subjektiboak aitortzen dizkie, besteak beste, zainketa bereziko eskubidea. Ildo beretik, haurrak eta nerabeak babesteko lege berriek (lege organikoak⁷ eta arruntak⁸) aldatu egiten dute 1/2004 Lege Organikoa, Genero-indarkeriaren Aurkako Babes Osorako Neurriei buruzkoa. Hala, espresuki aitortzen zaie biktima egoera genero-indarkeriak eragindako familia-inguruan bizi diren haurrei. 8/2015 Lege Organikoa aldatu egiten du genero-indarkeriari buruzko aipatutako legea. Horren arabera, genero-indarkeria erruztatu ondoren, epaileak ez badu bisiten erregimena eta guraso-ahalaren komunikazioa eteten, epaia eman behar du, edonola ere, semea edo alaba nola babestuko den adierazteko, «haurraren interes gorena» aintzat hartuz. 26/2015 Legeak ezartzen duenez, «*botere publikoen jardunaren helburua izango da behar duten laguntza ematea, adingabeek harekin [emakume biktimarekin] jarraitzeko, adina edozein dela ere, bai eta horiek babestea, horiei arreta berezia ematea eta errekuiperatzea ere*». (12. artikulua, Babesteko jardunak).

Euskadin ere, nazioartean, Europan eta Estatuan bezala, haurrak babesteko arau-esparrua⁹ eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako borrokara bideratutako araudia eta politika publikoak daude.¹⁰ Seme-alabak dituzten bikoteetan edo bikote ohietan emakumeen aurkako indarkeria-kasuak daudenean, bi bideak aplikatu behar dira modu koordinatu eta koherentean. Inplikaturako auzialdi guztien lana eskatzen du horrek, ikuspuntu homogeneoetatik, helburu bateragarriekin eta esku-hartzeko aukera berdinekin. Erakunde arteko talde teknikoa (EATT)¹¹ *Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundearen arteko II. Hitzarmena (2009)* aplikatzen dela bermatzeaz arduratzen da Euskadin. Erakundearen diziplinarteko eta nazioarteko izaera dela eta, ikuspegiaren eta helburuen batasunean aurrera egiteko lan-foro ezin egokiagoa da, genero-indarkeria jasan dezaketen haurren babeserako.

EATT duela zenbait urte hasi zen esparru honetako jardueraren hobekuntzan eta koordinazio profesionalean lanean. Hobekuntza-prozesu horren baitan, Emakundek diagnostiko bat eskatu zuen; ¹²2014an aurkeztu zen hori, eta agerian utzi zituen helburua lortzeko zenbait oztopo, hau da, inplikaturako auzialdi guztiek ikuspuntu homogeneoetatik eta esku-hartze aukera berdinekin elkarlanean aritzeko oztopoak.

⁶ 4/2015 Legea, apirilaren 27koa, Delituaren biktimaren estatutuarena. 2015eko urriaren 28an sartu zen indarrean.

⁷ 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duena. 2015eko abuztuaren 12an sartu zen indarrean.

⁸ 26/2015 Legea, uztailaren 28koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duena. 2015eko abuztuaren 18an sartu zen indarrean.

⁹ Euskadin 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko, dago indarrean, arrisku eta babesgabezia egoeren ikerketarekin eta balorazioarekin lotura duena.

¹⁰ Euskadin, genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaz gain, otsailaren 18ko 4/2005 Legea dago indarrean, emakumeen eta gizonen berdintasunerako.

¹¹ EATTn honakoek hartzen dute parte: abokatuen elkargoak, Fiskaltzak, Euskadiko Sendagileen Kontseiluak, hiru Foru Aldundiek, Eudelek eta Eusko Jaurlaritzako Sailek (enpleguan, gizarte-zerbitzuetan, justizian, osasunean, segurtasunean eta hezkuntzan eskumenak dituztenak). Emakundek du EATTren Idazkaritzaren ardura.

¹² Emakunde, 2014: Genero-indarkeriaren biktima diren Euskadiko haurren eta nerabeen arretari buruzko diagnostikoa. Save the Children-ek egina.

Ikerketa horretan islatzen denez, indarkeria jasaten duten emakumeei ematen zaien laguntzak eta hurrei eskaintzen zaien arretak bi esfera ezberdin osatzen dituzte neurri handi batean, eta horiek partekatzen duten esparrua, oraindik ere, ez da nahikoa. Genero-indarkeriaren aurkako borrokara bideratzen diren baliabideak, nagusiki, emakume biktimak izaten dituzte helburu, eta haurren arretarako baliabideak arrisku eta babesgabezia egoeran dauden adingabeei zuzentzen zaizkie gehienbat, haurrek genero-indarkeriaren biktima gisa jasotzen duten arretari modu espezifikoan eta genero-ikuspegiaren arabera erreparatu gabe.

Diagnostikoan antzemandako erronketan aurrera egiteko interesak bat egiten du, gaur egun, Europako eta Estatuko araudiaren hobekuntzatik eratorritako erronkekin. Azken araudi hori, era berean, gaineratu egiten zaio giza-eskubideen zuzenbide internazionalako esparruaren baitako betebeharrei.

Hortik abiatuta, Emakundek EATTren hiru saio monografiko antolatu zituen problematika hori lantzeko eta ikuspuntuen batasunean zein koordinazioaren hobekuntzan aurrera egiteko: lehena urriaren 27an, bigarrena 2015eko abenduaren 1ean eta hirugarrena 2016ko apirilaren 21ean. Dokumentu honetan saio horietan adostutako akordioak laburbiltzen dira, eta aurrerago jarraitu beharreko urratsak proposatzen dira, genero indarkeria jasan dezaketen haurrak babesteko ekintza-ildoen inguruan akordio batera iristeko, ikuspuntu hirukoitzaren arabera: giza-eskubideak, haurtzaroa eta generoa.

II.- Saioetako parte-hartzaileak

Izaskun Landaida Larizgoitia	EMAKUNDEren zuzendaria
Elena Ayarza Elorriaga	Arartekoa
Juan Calparsoro Damián Jesús Izaguirre Gericagoitia Mercedes Bautista Vázquez	Fiskaltza Nagusia Arabako Fiskalburua (indarkeria) Gipuzkoako Adingabekoen Fiskala
Roberto Moreno Álvarez Lourdes Lorente Diharce	Herri Administrazio eta Justizia Saila BLZ
Idoia Ebro Negro Nagore Otazua Olano (etxebizitza) Ainhoa Güemes Moreno	Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila
Haizea Careaga Abaitua Luisa Mari Puertas Peña M ^a Teresa Ruiz López M ^a Sol Antolín	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila
Iñaki Elexalde García-Escudero Peio Trabudua Eguskiza	Segurtasun Saila
Txus Ziarrusta Bilbao	Osasun Saila
Pilar Sanz de Pablo Regina Eguiluz Fernandez (adingabekoak eta familia) M ^a Ascensión Martínez Fernandez de Landa Eduardo Portilla Najera	Arabako Foru Aldundia
Lola Menchaca Araluze Hurtzaroa: Consuelo Alonso Vergara	Bizkaiko Foru Aldundia
Patxi Leturia Arrazola Hurtzaroa: Belén Hernández Rodríguez Berdintasuna: Aurora Iturrioz López Ana Isabel Bárcena González	Gipuzkoako Foru Aldundia
Mireia Espiau Idoiaga Ainara Bergaretxe Undabarrena	EUDEL
Juana M. Balmaseda Ripero	Legelarien Euskal Kontseilua.
Leonor Aurrekoetxea Bidosola andrea	Euskadiko Sendagileen Kontseilua
Irune Lauzirika Jauregi Unai Casado Lataburu Izaskun Fernandez Otegui M ^a Socorro Alvarez Fernández Leyre Sologuren Etxenagusia	Emakunde

III.- Lan-saioetako araudi-esparruaren eskema

Lan-saioetan abiapuntutzat hartu zen nazioarteko, Europako eta Estatuko araudi-esparrua, testuinguru horretatik egungo lanbide-praktikak aztertzeke eta elkarlanean hobekuntza-proposamenak egiteko:

Nazioarteko esparrua

Emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak desagerrarazteari buruzko Konbentzioa, 1979:

- Genero-arrazoien ondoriozko bazterkeriaren egitura-testuingurua, emakumeen aurkako indarkeriaren oinarri gisa, eta horren eragina hurrengan.
- Erantzuteko beharra, neurri egokiekin, indarkeria errepika ez dadin.

Haurren Eskubideei Buruzko Hitzarmena, 1989. Genero-indarkeriaren aurrean haurrak babestera behartzen duten lau printzipio orokor:

- Diskriminatua ez izateko eskubidea.
- Bizitzeko, bizirauteko eta garatzeko eskubidea.
- Adingabeakoen interes gorena, eskubide, printzipio eta prozedura-arau gisa.
- Entzuna izateko eskubidea.

Istanbuleko Hitzarmen, 2011:

- Genero-ikuspegia: genero-harremanak ulertzea, indarkeriaren oinarri gisa.
- Biktimen, erasotzaileen eta seme-alaben arteko harremana ikuspegi bakar batetik begiratzen duen ikuspuntu osoa.
- Bigarren mailako biktimizazioa saihestea.

Haurrak eta nerabeak babesteko lege berriak eta Biktimaren Estatutuaren Legeak (2015)¹³:

- Seme-alaben aitortzea biktima zuzen gisa eta haurren amek edo ordezkariak dituzten arreta- eta babes-eskubide berberen bermea.
- Agintaritza judizialaren betebeharra seme-alabak babesteko bideak espresuki arrazoitzeke.
- Adingabeak biktimekin jarraitzeke laguntza, adina edozein dela ere, baita horien babesa, arreta berezia eta errekupeatzea ere.

¹³ Sarreraren aipatuak.

IV.- Saio bakoitzeko lanaren helburua

Lehen saioa: Praktika onak, oztopoak eta erronkak identifikatzea eta partekatzea genero-indarkeriaren biktimen seme-alaben babeserako araudi-esparruaren betearazpenean, ikuspuntu homogeneotik (ikuspuntu hirukoitza: giza-eskubideak, haurtzaroa eta generoa).

Bigarren saioa: Lehen saioaren edukia baliozkotzea eta adostutako dokumentu baten lanketan aurrera egitea, erronkak eta instituzioen erantzuna hobetzeko neurriak eta genero indarkeria pairatzen duten haurren giza-eskubideak eraginkortasunez babesteko koordinazioa jorratzeko.

Hirugarren saioa: Ekintza-ildoak behin betiko adostea, identifikatutako erronkak zehazteko eta horiek dokumentu adostu gisa proposatzeko II. Hitzarmenean erabakitzeke ahalmena duten organoei.

V.- Hiru lan-saioetako emaitzen sintesia

1. Oztopoak eta hobetu beharreko alderdiak identifikatzea

Genero indarkeriaren biktima diren Euskadiko haurren giza-eskubideak babesteko jardunbideari eta koordinazioari buruzko akordioaren oinarriak ezartzeko abiapuntua izan zen EATTko parte-hartzaile profesionalen iritzi-trukaketa, eztabaida-taldean metodologiaren bidez. Talde horietako ekarpenak funtsezko hiru norabidetan ardaztu ziren: praktika onak («ikuspegi hirukoitzaren» arabera jarduerak eta esku-hartze egokia suposatzen dutenak), erantzun egokia eragozten eta galarazten duten oztopoak eta Euskadiko adingabe hauekin egiten den lanari erantzun hobea emateko beharrak.

Lehen saioan, parte-hartzaileek praktika onak eta oztopoak identifikatu zituzten¹⁴, genero indarkeria jasan dezaketen haurren giza-eskubideen babeserako.

Parte-hartzaileek identifikatu zituzten **oztopoak eta hobetu beharreko alderdiak**, jarraian laburbiltzen dira:

- Aurrerapenak egon diren arren, esku-hartzearen inguruko ikuspegi ezberdinak daude, eta ondorioz, jardunbide ezberdinak eragiten dituzte, eta koordinazioari eta auzialdien arteko informazio-transmisioari lotutako gabeziak dakartzate.
- Espezializazioa ez da oraindik nahikoa: esku-hartzen duten auzialdi gehienetan hautazkoa da oraindik ere giza-eskubideei, generoari eta haurtzaroari lotutako prestakuntza. Ondorioz, gaiari eragiten dioten erabakiak hartzen dituzten profesional guztiek ez dute beharrezko espezializaziorik.

¹⁴ Aipatu behar da parte-hartzaileen ekarpenetatik sortutako praktika onen zerrenda ez zela zerrenda zehatz bat, orientagarria baizik. Hori dela eta, ez zaio dokumentu honi gehitu.

- Haurren ikusgarritasuna txikiegia da oraindik ere genero indarkeriaren biktima zuzen gisa. Auzialdi guztietan ez da oraindik ere kontuan hartzen genero-indarkeria dagoen inguruetan bizi diren haurrengan indarkeriak duen eragina. Azken urteetan aurrerapenak egon diren arren, detektatze- eta arreta-protokoloak falta dira hezkuntzaren esparruan. Babesgabeziaren esparruan bermatu behar da balorazio-tresnek, informazio-bilketak, balorazioek eta esku-hartzeek ikuspegi hirukoitz hau kontuan hartzen dutela: haurtzaroa, generoa eta giza-eskubideak. Era berean, ziurtatu behar da genero-indarkeriaren eraginak modu egokian jasotzen dituztela, hurrei zein emakume biktimei dagokienez.
- «Adingabekoaren interes gorena» (AIG) ez da zehazten, zenbait esparrutan, jokoan dauden eskubide eta interesen neurketa eraginkorraren arabera: oraindik ere erantzun automatikoegiak dira nagusi, AIGren zehaztapen pertsonalizatuari eta arduratsuari erantzuten ez diotenak.
- AIGren zehaztapenean dauden gabeziak direla eta, orokorrean, eskubide eta interesen arteko talkak antzeman daitezke, erantzun egokia eta zehatza oztopatzen dutenak haurren babeserako eta horiei egindako kalteen konponketarako. Talka horien arrazoiak hauek dira, funtsean: a) aita erasotzaileen erabakiak guraso-ahalean zehar, amaren babes-beharren ondorioz eskatutako ikastetxe-aldaketen aurka, edota haurren errekuperatze-psikologikorako tratamenduen auka, besteak beste; b) Hezkuntza Sailari edo Osakidetzaari egindako informazio-eskaria tratatu txarren biktimentzako etxebizitza-baliabideetan amarekin batera bizi diren haurren aiten aldetik, hezkuntza- edo osasun-esparrutik aitari emandako informazioak ez dezan aukerarik eman baliabidearen kokapena identifikatzeko, konfidentzialtasuna urratu gabe eta baliabidearen eta bertan bizi diren pertsonen segurtasunari eragin gabe.
- Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen errekuperatzeari eta ahalduntzeari ikusgarritasuna eman behar zaie, errekuperatzeko modu gisa, lehenik eta behin, eta beren kontura dituzten adingabe eta nerabeen ongizaterako eta babeserako bide gisa. Hala, beharrezkoa da emakumeak errekuperatzera bideratutako esku-hartzeen planifikazioan lanean jarraitzea, ama gisa duten eginkizunean babes egokia emateko gai izan daitezen. Indarkeriari aurre egiten dioten emakumeen ahalduntzera bideratutako esku-hartzeekin batera, beharrezkoa da horien kargura dauden adingabe eta nerabeekin esku-hartze zuzenak eta pertsonalizatuak gauzatzea, eurak ere indarkeria matxistaren biktima zuzenak baitira.
- Erabaki judizialek adingabekoaren interes gorena kontuan hartzen duten arren, gabeziak identifikatzen dira prozedura judizialean genero-indarkeria jasan dezaketen haurren beharrak estaltzeko orduan. Zehazki, haurraren interes gorena murriztu egin daiteke elkarguneetan bisitak garatzen direnean, adingabekoaren gogoz kontra. Horrek guztiak adierazten du elkarguneen filosofia, beharra, egituraketa eta funtzionamendua birplanteatu beharko liratekeela, adingabeen ongizatea uztartzeko aldera, ikuspegi hirukoitza kontuan hartuz: haurtzaroa, generoa eta giza-eskubideak. Horretarako, prestakuntza-ikastaroak eskaini beharko lirateke fiskalentzat, epaileentzat eta abokatuentzat.

2. Erronkak eta ekintza-ildoak erantzun egokia emateko

Praktika onei buruzko informazioa bildu eta oztopoak identifikatu ondoren, horien araberrako erronkak eta ekintza-ildo egokiak formulatzeari ekin zitzaion, genero indarkeriaren biktima diren Euskadiko haurren giza-eskubideen babes egokia bermatzeko. Identifikatutako erronkek eta ekintza-ildoek, nolana ere, lanketa zabalagoa eta etengabea behar izango dute EATTn. Hauek dira horiek:

1. eta 2. erronkak:

- Euskadin politika-esparru berria eratzea, emakumeen aurkako indarkeriak haurrengan duen eragina aitortzeko, ikuspuntu profesionala eskaintzeko eta jarraibide homogeneoak emateko, haurren eskubideak bermatzeko nola lan egin eta koordinatu zehazten dutenak, alegia.
- Jardunbide profesionalaren ikuspegi bateratua sendotzea, biktimizazio bikoitzari (emakumea eta seme-alabak) erantzuteko beharrean oinarrituz, giza-eskubideen, haurtzaroaren eta generoaren ikuspegitik.

Bi erronkek lotura dute: lehenengoa politikaren zatian oinarritzen da, eta bigarrena, zati operatiboan eta praktikoan. Protokolo bateratuen aplikazioa sendotzean datza, ikuspegi adostu baten arabera.

Ekintza-ildoak:

1. Erakundeen arteko III. Hitzarmena lantzea, lehentasun, jardunbide eta ikuspegi berriak jasotzen dituen. Erakundeen arteko Hitzarmenaren esparru politiko eta teknikoaren moldaketak aldaketa sakonegia beharko luke, horrek emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean haurrak babesteko indarrean dagoen nazioarteko, Europako eta Estatuko arauditik eratorritako ikuspegiak eta betebeharrak barne har ditzan. Beraz, II. Hitzarmena aldatu beharrean, III. Hitzarmen bat sortu beharko litzateke.

II. Hitzarmena aldatu ala III. Hitzarmenaren onarpena planteatu behar ote zen eztabaidatu zen, eta parte-hartzaileek III. Hitzarmen bat eratzea egokiagoa zela adostu zuten; izan ere, emakumeen aurkako indarkeriaren kontzeptualizazioa nahiz printzipio orokorrak eta protokoloak zaharkiturik daude. Gainera, beharrezkoa da indarkeriaren biktimen seme-alabei ikusgarritasuna ematea.

2. III. Hitzarmena aldatu baino lehen, diskurtso bateratua adostea. Giza-eskubideen, haurtzaroaren eta generoaren ikuspegiari oinarritu behar du horrek, eta biktimen eta erasotzaileen seme-alabengan indarkeria matxistak duen eragina kontuan hartu.

3. EATTk jarraipen iraunkorra egitea hedapenaren, prestakuntzaren, protokoloen eta esku-hartzeko jarraibideen inguruan. Ekintza-ildo hori abian eta funtzionamenduan dago jada, baina horren hobekuntza-marjina doitu behar da. Instituzioek egiten duten lan guztia EATTtik igaro behar da; informazioa eman behar zaio EATTari. Akordioaren aplikazio praktikoa berrikusi behar da. Horretarako, instituzio sinatzaileen konpromisoa behar da, EATTari informazio egokia eman diezaioten, eta Akordioaren Politika Batzordeak EATTaren lana baliozkotu beharko du.

Protokoloak beharren arabera eguneratzeko aukera aurreikusi behar da III. Hitzarmenean, eguneratze hori sustatzeko aukera EATTaren eskuetan jarritz. Modu horretan, ez da beharrezkoa izango hitzarmen berri bat egitea koordinazio-protokolo bateratua eguneratu behar den bakoitzean.

4. Araudi berrira moldatzeko neurriak finantza-bitartekoekin hornitzea; izan ere, genero-indarkeriaren biktimen seme-alaben eskubideak babestea helburu duen diziplinarteko jardura egokitze, beharrezkoak izango dira, besteak beste, gastu pertsonala, prestakuntza eta protokolo edo giden sorrera. Zehazki, ikuspegi horren aplikazioa bermatu behar da detektatze-ekintzetan, esku-hartzean eta koordinazio profesionalean, aurrekontu-zuzkidura zehatz baten bitartez, auzialdi bakoitzearaino eta koordinazio-bide guztietara hel dadin.

Instituzio sinatzaileek konpromisoa hartu behar dute beharrezko baliabideak eta finantzaketa-bitartekoak emateko. Zehazki, ezinbestekoa da:

- Beharrezko baliabide, programa eta zerbitzuak bideratzea.
- Aurrekontuak bideratzea, pertsonalaren gastuak areagotzea: pertsonala handitzea, espazio egokiak, etab.
- Berezko langileen zein azpikontrataturako enpresen prestakuntza berezia bermatzea:
 - Prestakuntza eta jarduteko tresna teknikoak eskaintzea, eguneratuak eta araudi- eta politika-esparru berrira egokituak. Eta biktimen arretarako instituzio-esparruetan lan egiten duten profesionalak derrigortzea prestakuntza berezi hori egin dezaten.
 - Ikuspegi hirukoitzaren inguruko (giza-eskubideak, haurtzarora eta generoa) prestakuntzaren exigentzia-maila adostea, esparru honetan zerbitzuak eta arreta-baliabideak ematen dituzten erakundeen kanpo-kontrataziorako, eta langileek prestakuntza-saioetan parte hartzea.
- Koordinazio-guneak antolatzea instituzio bakoitzaren baitan ikuspegi hirukoitzetik lan egiteko.

3. erronka. Auzialdi guztiei jarraibide juridiko bateratuak eskaintzea esparru honetan gertatzen diren eskubide-talka ohikoenak konpontzeko, batik bat aitaren (erasotzailearen) guraso-ahalak eragindako oztopoekin loturiko talkak, seme-alabak babesteko edo errekupeartzeko.

Ekintza-ildoak: Gida orientatzaile bat egitea, adingabearen interes gorenaren zehaztapen orokorrean oinarritzen dena¹⁵ eta oinarritzko ekarpen juridiko solidoa egiten duena. Horren bidez, auzialdi bakoitzaren jardun-aukerak argitu eta bideratuko dira, eskubide- eta interes-talkak daudenean haurren babesari eta errekupeatzeari eragiten dieten egoera arruntenetan, «egitatezko» genero-indarkeria zein «eskubidezko» genero-indarkeria dagoen kasuetan (sistema judizialak ezagutzen eta aitortzen dituen kasuak).

Gida egiteko, interesgarria litzateke auzialdiek antzemandako zailtasunak, gabeziak, zalantzak edo egoerak/kasuistikak bilduz hastea eta horiei erantzun arrazoitua ematea.

Gidaren aurkezpena, hedapena, banaketa eta erabilera egokiak burutzeko eta sendotzeko, prestakuntza-prozesuak antolatuko lirateke.

4. erroka. Emakumeen aurkako indarkeriaren kasu guztietan haurren babesa bermatzea, salaketarik edo dibortzio-demandarik jarri ez den kasuetan ere.

Ekintza-ildoak:

1. Detekzioa hobetzeko, salaketa alde batera utzita, tresna espezifikoak sortzea osasun-, hezkuntza- eta gizarte-arloko auzialdientzako, horien bitartez haurrak jasaten duen indarkeria mota hau identifikatu ahal izateko, adina eta bilakaera-etapak kontuan hartuz.
2. Familia-epaitegietako lantalde psikosozialen ikuspegia eta funtzioa hobetzea, prestakuntzaren, metodologia egokien eta giza-baliabide espezializatuen bidez, batez ere psikologia-esparruko profesionalen bitartez. Batik bat, pertsonal zabalagoa behar da lantalde psikosozialetan (familia-epaitegiak), baita lantalde espezializatuen plantilla ere Emakumearen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegietan, indarkeriarik dagoen ala ez ebatzi ahal izateko.
3. Adingabeen babeserako eta indarkeriaren biktima diren emakumeen arretarako auzialdien arteko koordinazioa hobetzea, elkarlanerako taldeen bidez. (ikus garapen zabalagoa 5. errokan).
4. Laguntza-programak antolatzea erasotzailearekin bizi diren emakumeentzat, salaketa kendu dutenentzat edo etxebizitzatik atera ondoren erasotzailearengana itzultzen direnentzat.¹⁶ Testuinguru hauetan bizi diren emakumeen eta haurren

¹⁵ Ikus Haurren Eskubideen Nazio Batuetako Hitzarmenaren 14. Ohar Orokorra (2013), haurraren interes gorena funtsezko kontsiderazioa izateko eskubideari buruzkoa.

¹⁶ Aldundietan abian daude jada mota honetako ekimenak. Adibidez, Bizkaiko Foru Aldundiak programa berezi bat eskaintzen du emakumea ustezko erasotzailearekin bizi den kasuetarako edo erlazioari berriro ekiteko arriskua dagoenerako (*Etxean indarkeria jasaten duten emakumeen gaian espezializatutako Familia Arloan Esku Hartzeko Programa*). Erasotzailearen etxebizitzan gelditzea edo hara itzultzea erabakitzen duten biktimei edo erasotzailearekin bizi ez arren berriz harekin bizitzen hasteko arriskua dutenei laguntza psikosoziala eskaintzeko helburua du programak, baita familia horiekin bizi diren adingabeei ere. Programak egoerari aurre egiteko eta erabakiak hartzeko gaitasunak eta baliabideak ematen dizkie.

eskubideak babesteko aukeren jarraipena egiteko jarraibideak zehaztea, indarkeria-egoera bizi duten emakumeei erlazioa hausten laguntzeko eta adingabeen babes eraginkorra bermatzeko. Balioetsi beharrekoa:

- Emakumeen laguntza-beharrak erlazioa hausteko.
 - Haurren arrisku-egoera.
 - Aitaren (erasotzailearen) jarreraren eragina seme-alaben babesgabezia.
5. Auzialdiek emakumeekin «erruduntasunik gabeko» diskurtsoa erabiltzen dutela bermatzea, emakumeen eskubideen inguruko informazio zehatza eta ahaldunderako laguntza eskainiz, haurren giza-eskubideak babesteko betebeharra betetzen duten bitartean.
6. Familia-elkarguneak ebaluatzea eta berrikustea, adingabeengan zer eragin duten aztertuz, eta ikuspegi hirukoitz honetatik alternatibak diseinatzea: haurtzaroa, generoa eta giza-eskubideak.

5. erronka. Genero indarkeriak haurrengan dituen eraginen balorazio egokia bermatzea, eta arreta psikosozial berezia ziurtatzea, eragin horiei arreta emateko eta kalteen konponketa osoa lortzeko.

Ekintza-ildoak:

1. Derrigorrezko prestakuntza espezializatua bermatzea adingabeekin eta indarkeriaren eragina balioesteko tresnekin lan egiten duten lantaldeetan, eta haurren eskubideak esfera guztien ikuspegi hirukoitzetik gauzatzen direla bermatzea. Institutuzio bakoitzak zuzendu beharko du prestakuntza, horietako bakoitzak bermatu behar baitu zerbitzu egokia. Zentzu horretan, prestakuntzak derrigorrezkoa eta jarraitua izan behar du, eta 6. erronkan aipatzen diren protokoloen hedapena aintzat hartu behar du.
2. Erasotzaileen seme-alabengan genero-indarkeriak duen eraginari buruzko ikerketa-lerroak irekitzea, haurtzaroaren, generoaren eta giza-eskubideen ikuspegi hirukoitzetik. Adibidez, EHUn ikerketa-lerro horiek bultzatuz, edo Emakunderen ikerketa-beken bidez.
3. Emakumeen aurkako indarkeriak haurrengan epe laburrean, ertainean eta luzean duen eraginari ikusgarritasuna ematea. Esku-hartzen duen profesional taldeaz gain, ekintza-ildo honetan funtsezkoak dira komunikabideen eta unibertsitate- eta lan-prestakuntzaren (zuzenbidea, psikologia, medikuntza, gizarte-langintza, erizaintza, gizarte-hezkuntza...) funtzioak.

4. Hiru Lurralde Historikoetan ekarpen bateratua eta adostua egitea, «Balora» tresnak, babesgabezia-arriskua balioesteko tresnak, ikuspegi hirukoitza darabilela bermatzeko eta genero-indarkeriaren eragina modu egokian identifikatzen eta balioesten duela ziurtatzeko.

6. erronka. Auzialdien arteko informazio-fluxua bermatzea, erabakiak hartzeko ezinbesteko bide gisa, genero-indarkeriaren arriskuak dituen eraginak aitor ditzaten eta haurren eskubideak eraginkortasunez babes ditzaten.

Ekintza-ildoak:

1. Kasuak hauteman ondoren, informazioa lekualdatzeko bide espezifikoak hobetzea (ikus 4. Erronka), hezkuntza-, osasun- eta gizarte-arloko auzialdietatik beste zerbitzu batzuetara, polizia-auzialdiei eta auzialdi judizialen kasuan bereziki. Horretarako:
 - Eremu bakoitzaren informazio-beharrak identifikatzea, eta beharrezko diren informazio-fluxuak eta eremu horien artean jada existitzen direnak hautematea.
 - Institutuzio barneko zein arteko koordinaziorako eta desbideratzerako jada existitzen diren akordioak edo protokoloak berrikustea edo berriak sortzea, aurreko puntuan identifikatutakoa kontuan hartuta.
2. EATTa hiru Lurralde Historikoetan ezartzea eta lurralde bakoitzean lan-batzordeak sortzea, akordioa aplikatzeko eta horren jarraipena egiteko asmoz. Horien helburua izango da gai hauen inguruko ikuspegiaren ematen diren aldaketak, prestakuntza eta tresnak ikuskatzea. Era berean, zalantzak argitzeko erreferente gisa baliatu ahal izango dira, baita lurraldeko auzialdietarako laguntza-tekniko gisa ere.
3. Emakumeen aurkako indarkeria-kasuen eta testuinguru hauetan babesgabezia-egoeran dauden haurren kasuen inguruko informazioa ematen duten profesionalak babesteko mekanismoak ezartzea. Adibidez, nomina-zenbakiarekin sinatzeko aukera hedatzea, administrazio batzuetan egiten den bezala.

7. erronka. Ahalduentzen laguntzeko eta indarkeriaren biktima diren emakumeei eragindako kalteak konpontzeko prozesuak hobetzea, eta prozesu horiek harremanetan jartzea emakumeei beren kargura dituzten adingabeen eta nerabeen ahalduentzerako, kalteen konponketarako eta babeserako prozesuekin.

Ekintza-ildoak:

1. Ahalduente-prozesuak lantzea, modu integralean, emakumeen bizitzako eremu guztietan. Horretarako, gomendagarria da Aldundietan lanean jarraitzea Gizarte Zerbitzuen eta Berdintasunaren arteko koordinazioa hobetzeko lerroan.
2. Emakumeen ahalduente ekonomikorako prozesuak hobetzea, posible denean lan-esparrurako sarbidea errazteko neurriak sustatuz, erasotzailetik askatzeko eta emakumeei zein seme-alabek jasandako indarkeriaren eraginak errekuuperatzeko ezinbestekoak baitira.
3. Emakumeen ahalduente-prozesuak zailtzen dituzten oztopoak identifikatzea eta deuseztatzea. Zehazki, emakumeen gehiengoari laguntza-programetan parte hartzea zer irizpidek eragozten dioten hautematea. Izan ere, Lanbidek¹⁷, besteak beste, babes-agindua edo genero-indarkeria frogatzen duen epaia eskatzen du biktimen laguntza-programetan parte hartzeko.

¹⁷ Lanbidek hausnarketa-prozesu bat hasi du jada, zerbitzuak eskakizun honetara moldatzeko eta indarkeria-bizipenak frogatzeko beste modu batzuk onartzeko aukera ebaluatzeko.